



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Industria Sailburuordetza
*Proiektu Estrategikoen eta Industria
Administrazioaren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Industria
*Dirección de Proyectos Estratégicos y
Administración Industrial*

ZIRKULARRA SGI/2023/02

GAIA: ISTRIPUEN JAKINARAZPENA

Industria-segurtasuneko instalazioen istripuei buruzko komunikazioari dagokionez, Industria-segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuak 14 e) artikuluan ezartzen duenez, industria-segurtasuneko jardueren titularrek, besteak beste industria-segurtasuneko jardueren arloan gaitutako enpresen titularrek, betebeharrak hauek dituzte:

“e) Segurtasun industrialeko Administrazioari jakinaraztea, jakinarazpen baten bidez eta, gehienez ere, hogeita lau orduko epean, haien titulartasuneko jardueran edo instalazioan gertatutako istripuak.

Dekretu honetan ezarritakoaren ondoreetarako, istripuztat hartuko dira segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten garapen edo funtzionamendu normala aldatzen duten aldi bateko gertaerak, horietan pertsonak, ondasunak edo ingurumena kaltetzen badira.”

81/2020 Dekretuan ezarritako istripuaren definizioa ikusita, jarduera edo instalazio baten funtzionamendu normala aldatzen duen eta pertsonen, ondasunen edo ingurumenari kalteak eragiten dizkion gertaera oro, instalazioa bera babestu beharreko ondasun bat izanik, berehala eta gehienez 24 orduko epean jakinarazi behar zaio Administrazioari.

Horretarako, eredu estandarizatuak onartu ezean, komunikazioan datu hauek jaso behar dira:

- Istripuaren eguna, ordua eta lekua
- Istripuaren deskribapena
- Eragindako kalteen aurrerapena

Jakinarazpen hori instalazioari dagokion dokumentazioa aurkezteko prozedura erabiliz egin beharko da, 1. irudian agertzen den “istripuen jakinarazpena” aukera berria aukeratuta eta, posta elektronikoz, dagokion ordezkartzaren ataleko postontzira bidalita:

1. Irudia. "Dokumentazioa aurkeztea" prozeduraren barruan, "istripuen jakinarazpena"-ren check-a erakusten duen irudia.

Istripuetako komunikazioak egiteko prozedura hau erabiltiko dira honako sekzioetan:

- a) Presio ekipoak
- b) Gas instalazioak: hartzaileak eta biltegiak.
- c) Instalazio termikoak
- d) Hozteko instalazioak
- e) Gai kimikoen biltegiak
- f) Jasogailuak (Garabi autopropulsatuak eta Dorre garabiak¹)
- g) Istripu larriak

Lurralde-ordezkaritza bakoitzeko helbide elektronikoa:

- o Industria-segurtasuna-araba@euskadi.eus
- o Industria-segurtasuna-bizkaia@euskadi.eus
- o Industria-segurtasuna-gipuzkoa@euskadi.eus

Istripu baten berri ez ematea edo hura atzeratzea gaitutako enpresei aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen betebeharrak ez betetzea da, eta, beraz, dagokion zehapen-espeditentea ireki liteke.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.

Sin. ANTON ARRIETA INSAUSTI

INDUSTRIA-SEGURTASUNEN ARDURADUNA

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZA

¹ Igogailuen prozedura 2023ko urtarrileko zirkularrean azaldutako moduan mantentzen da.